

# SORGINXULO LESAKAKO KULTUR-BILGUNEA

## 18. BILERA AKTA

EGUNA: OTSAILAK 6, LARUNBATA

ORDUA: 9:30

TOKIA: HARRIONDOA KULTUR ETXEA – ZUMARRA GELA

### BERTARATUAK

GURE ARRANO ELKARTEA  
OTXOGORRIENEA GURASO ELKARTEA TANTIRUMAIRU IKASTOLA  
BORTZIRIETAKO BERTSO ESKOLA  
IRAIN GURASO ELKARTEA  
MAIRU ANTZERKI TALDEA  
SAN FERMIN JUBILATU ELKARTEA  
TANTIRUMAIRU EUSKAL FOLKLORE TALDEA  
LESAKAKO EUSKARA BATZORDEA  
S.C.R.D. BETI-GAZTE K.J.K.E.  
LESAKAKO ABESBATZA  
GILTZARRI ABESBATZA  
LESAKAKO SOINULARIAK  
TXISTULARI TALDEA  
ELUTXA TXARANGA

### AINZINAKO AKTA ONARTZEA

Onartzen da

### DIRU-LAGUNTZAK

Aurtengo diru-laguntzei begira zirriborroa egin da iazko formula berdinekin. Astelehenean kultura batzordean aurkeztuko da. Intentzioa eragile bakoitzarekin bilera bat egitea da, iazkoa eta aurtengoari buruz hitz egiteko. Talde bakoitza deituko da eta ordu erdiko bilerak izanen dira eta bertan banaketa nola gelditu den azalduko da. Ohiturazko atala gutti gora behera berdina gelditu da. Funtzionamendu gastuen kasuan aurten eskaera gehiago izan direnez, formula berdina erabiliz, guttigo tokatuko da eragile bakoitzari, iaz eskatu ez zuten eragile batzuk aurten eskatu dute eta. Emanaldien atala gutti gora behera iaz bezala.

Partida mantendu da bino Santa zeziliako partida hemendik atera da eta Eguberrietako partidan sartzea da intentzioa.

Orokorrean gauza gehiagotarako eskatu da eta hori positiboa da, urte abertasa izanen dela dirudi.

Justifikazioaren inguruan aurten eztabaida badago. Ziurrenik proposatuko dena esleitutakoa baino %15 edo %20 gehiago justifikatu beharko dela da. Labur bilduta 1.000 eskatu eta 500 ematen badira 550 justifikatu beharko da.

Honen inguruan antolatzaileentzat galera izanen dela aipatzen da bertaratuen artean. % hori gehiago justifikatu behar bada eragile batzuen gain eragina izanen du, eta jarduera ez egitea suposatzen ahal du. Behartuak ikusten dira gehiago eskatzera beraz ez da erreala.

Eskatzen dena nahiko erreala dela uste da.

Proposamenak: aukera bat izaten ahal da emanaldi ttikiak %100 diruz lagundu eta handietan bai % edo baremazioa eplikatuz.

Hala ere aipatzen da elkarte bakoitzak bere errealitatea duela, batzuk kuotak edo badituzte bertze batzuk ez dute nondik atera falta den diru hori....

Ibanek 2021eko kultura aurrekontuak erakusten ditu. Partida berri bat badago, Kultur eta Kirol babesleak. Honen inguruan aipatzen da 2020an Pepito Yanci edo Incansables Txarangari diru kopuru bat eman zaiola eta horrelakoak partida honetan sartuko ziren. Arautko da, hortan dago orain kontua.

Iñauterietako partida ETS kontzertua ordaintzeko erabiltzeko eskaera egin da.

### LIBURU XURIA

19 eragile daude, liburu ederra aterako da. Zuzendua dago eta orain Aitor Arozenakin jarriko da harremanetan forma emateko.

#### **ERAGILEEN URTEKO PROGRAMAZIOA**

Hurrengo bilgunerarte uztea erabakitzen da. Programazioan diru-laguntzak eragina dute beraz hori jakin arte uztea erabakitzen da.

#### **GEURETIK SORTUAK (MATTANE)**

Udalbiltzatik antolatutako kultur proiektu bat da eta Lesaka eta Berari eskeini diote parte hartzeko. Liburu bat (8-10 kontakizun labur), pelikula bat (6-8 laburmetrai) eta 6 antzezlan sortu nahi dira. Sortzaile bakoitzari herri bat egokituko zaio lana sortzeko eta hurrengo urtean plazaratuko dira.

Informazio guztia <https://www.udalbiltza.eus/eu/proiektuak/geuretik-sortuak>

#### **OTSAILAKO AGENDA**

Otsailaren 12an hitzaldia eta 13an ekitaldia Egia Ur Azalera ekimenak antolatua.

Otsailaren 27an Mairun "Iluntzen" antzezlan (urtarrilaren 30ean egin behar zena).

Zinemaren inguruan hitz egiten da, Udalak duen lizentziarekin 12 pelikula ematen ahal dira. Uda partean kanpoan egiteko aukera planteatzen da.